



## HERRIGINTZATIK EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO PROIEKTUA

Aurre ezagutza aktibatu! Hausnarketarako ildoak. **Irakaslearentzako gidoia. Ariketa honek ikasleen artean hausnarketa bideratzea du helburu. 45-60' saioa aurreikusten da.**

- Azaldu zure ikasleei zein den ariketaren helburua. Banaka jarri itzazu eta eman bakoitzari orri zuri eta arkatz/boligrafo bat.
- Esan zure ikasleei behean agertzen den bezelako koadro handi bat marrazteko orrian. Goiko lerroan, adierazten diren hitzak idatzi. Gauza bera egin ezkerreko zutabeetan adierazten diren hitzekin (aukeran egongo da lehen zutabea hutsik eskaintzea edo irakasleak egoerak zehaztea).

	Hizkuntza	Zergatik?	Euskaraz izateko aukerarik ikusten duzu?	Zergatik?	Nola?
Familia					
Gaztetxea					
Lokala					
Tabernak					
Dendak					
Parkea					
Herriko Plaza					
Jaiak / Txosnagunea					



- Azaldu ikasleei nola bete behar duten taula. Asteko “Familia” eremuarekin hasiko dira. *Familian euskara ala erdara erabiltzen dut? eta Zergatik?* galderak eginez, erantzunak “Hizkuntza” eta “Zergatik?” dagozkien koadro barruan idatziko dituzte. *Euskara* baldin bada erantzuna, ez dute lerro horretan jarraitu behar. Erantzuna aldiz, *erdara* bada, orduan hurrengo hiru galderari -*Aukera ikusten duzu euskaraz egiteko? Bai? Ez? Zergatik? Nola?*-erantzuten saiatu beharko dira.
- Prozedura errepikatu beste eremu guztiakin. (Adibidez: *Gaztetxean euskaraz ala erdaraz hitz egiten da?*).
- Galdera guztiei erantzun eta gero, jarri ikasleak bikoteka. Eman 10 minutu beraien artean erantzun dutena komentatzeko eta konparatzeko.
- Laukoteak egin oraingoan. Prozedura errepikatu, erantzunak komentatu eta konpartitu ditzatela.
- Azkenik, talde handian, erantzunak komentatu. Jasotzen diren erantzunekin, ateratzen dituzuen ondorioak idatzi itzazue. Gogoratu azken prozedura honetan norberaren hizkuntza ohituretan baino, herriko ohituretan zentratu nahi dugula.
- Bukatzeko, gaiarekin kontzientzia hartzeko, talde txikietan lanean aritu direnean erabili duten hizkuntzaren inguruan galdetuko diegu. Erdara den kasuan zergatia aztertuko dugu.
- Bigarren fasean egingo den lanketari ahalik eta etekin handiena ateratzeko, fase hau garatzea gomendatzen dizuegu eta bertatik jasotako ondorioak Euskararen Etxera bidaltzea: [bisita@euskararenetxea.eus](mailto:bisita@euskararenetxea.eus)



## ONDORIOAK LANTZEKO ILDOA

- Zein da herrian orokorrean nagusitzen den hizkuntza?

- Zergatik?

- Esparru guztietan nagusitzen da ala bakar batzuetan? Zeintzuetan?

- Zergatik?

- Hizkuntza ohiturak aldaketzeko aukerarik ikusten da?

- Nola?

- Ondorioak: